

2019-01-29ko OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2019ko urtarrilaren 29an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian, Marta Castrillo Iturralde eta Jesús María Alonso Insausti.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Inor ez.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Jose Ignacio Imaz Bengoechea eta Mikel Gotzon Iturbe Saizar.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Olaia Nieto Legarra.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak hasitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxienerako partaide kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTAK ONARTZEA (2018-10-30; 2018-11-27).

Udalbatzak, aho batez, onartu ditu.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2018/205 DEKRETUTIK 2019/07 DEKRETURA BITARTEAN.

Alkateak 2018/205 dekretutik 2019/07 dekretura bitartekoen berri eman dio Udalbatzari.

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA
IRURAKO IKASTOLA ETA IRURAKO UDALAREN ARTEAN HITZARMENA
ONARTZEA, 2018-2019 IKASTAROAN KIROL ESKOLA KUDEATZEKO,
HALA BADAGOKIO.

Hitzarmena aurkeztu da Irurako Ikastola Koop. Elkartearen eta Irurako Udalaren artean, 2018-2019 ikasturterako buruzko programak aurrera eramateko.

Hori ikusita Udalbatzak, aho batez, hau onartu du :

1º.- Aipatu den Hitzarmena onartzea.

2º.- Marta Castrillo Iturralde anderea, Irurako Udaleko zinegotziari baimena ematea Udalaren izenean hitzarmen hori sinatzeko eta beste edozein gestio egiteko , helburua bete dadin.

Jose Ignacio Imazek (EH Bildu) galdetu du ea zer ordutegia daukaten.
Alkateak erantzun du aurten talde gutxiagoak daudela.

LAUGARREN GAIA
IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK.

Ez dago.

BOSGARREN GAIA
GALDE-ERREGUAK.- Gai hauek jorratu dira:

- a) Ainhoa Ugaldek (EH Bildu) adierazi du dekretuetan kanpoko pantaila informatiboa jartzearen dekretua ikusi dutela eta galdetzen du ea zenbat enpresari eskatu zaizkien proposamenak.
Alkateak erantzun du hiru enpresei eskatu zitzaiela eta prezioen aldetik ez zegoela diferentzia handirik eta hurbilena aukeratu zela.
Ainhoa Ugaldek (EH Bildu) galdetu du non jarriko den.
Alkateak erantzun du udaletxeko atzean.
Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) galdetu du ea ze batzordetan komentatuko den.
Alkateak erantzun du biztanleak ez direla Udaleko berriez enteratzen eta horregatik jarriko dela.

- b) Ainhoa Ugaldek (EH Bildu) adierazi du bikote batek etxebizitza alokatzeko diru-laguntza eskatu duela, baina uko egin zaiola diru-laguntza emateari ez direlako hemen bizi, naiz eta bertan denda bat izan. Komenigarria izango dela diru laguntzak emateko iritzia jasotzea.

OHARRA: eztabaida osoa jasota dago "www.irura.eus" helbidean.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:45ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA